

**2016ko KONTRATAZIO DEIALDIA, UPV/EHUrena,
IKERTZAILEAK TUTOREKIDETZAN PRESTATZEKO
UPV/EHU_n ETA IDEX BORDEAUX OSATZEN DUTEN
UNIBERTSITATEETAN:**

Onartutako eta ezetsitako eskaeren behin betiko zerrenda

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) onespena lortu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak 2016ko maiatzaren 9an argitaratu zuen

**2016ko KONTRATAZIO DEIALDIA, UPV/EHUrena, IKERTZAILEAK
TUTOREKIDETZAN PRESTATZEKO UPV/EHU_n ETA IDEX BORDEAUX OSATZEN
DUTEN UNIBERTSITATEETAN**

Eskaeren ebaluazio izapideak bukatu ondoren, IGBBk, 2017ko urtarrilaren 9ko bileran, adostu zuen errektoreordetzaren webgunean argitaratzea onartutako eta ezetsitako eskaeren behin-behineko zerrenda.

Gero, izangaiek hamar eguneko epea izan zuten erabakia onartzeko, hari uko egiteko edo egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkezteko.

Izapide hori bukatu ondoren, ikusita lau uko egite jaso direla eta ez dela alegaziorik aurkeztu, ERABAKI DA errektoreordetzaren webgunean argitaratzea onartutako eta ezetsitako eskaeren behin betiko zerrenda, hasiera batean emandako lau laguntzei emango diren beste lau laguntza gehituta.

Behin betiko zerrendan jasotako beste lau laguntza horien onuradunek **2017ko otsailaren 20a baino lehen** adierazi beharko dute laguntza onartzen dutela edo hari uko egiten diotela, mezu elektronikoko bat helbide honetara bidalita: rrhh-inves.dgi@ehu.eus

Epe hori igaro ondoren, laguntza ez bada berariaz onartu edo ez bazaio hari berariaz uko egin, eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da.

Kontrataziorako dokumentuak aurkeztea:

Laguntza onartu duten onuradun guztiek **2017ko otsailaren 20a baino lehen** e-mail bidez bidali beharko dituzte rrhh-inves.dgi@ehu.eus helbidera honako dokumentu hauek PDF formatuan:

- a. Aurreko beken aitortpena
- b. Gizarte Segurantzako fitxa
- c. Lanean hasteari buruzko ziurtagiria (hasteko data 2017/03/01a izango dela adierazita)
- d. Onuradunaren aitortpena
- e. Bi unibertsitateetako doktorego programetako matrikularen gordekina
- f. Doktorego programara sarbidea ematen du(t)en titulua(k) (gradua, masterra, lizentziatura).

Gero, **2017ko otsailaren 20a baino lehen**, dokumentazio hori UPV/EHUko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dute.

Erabili beharreko ereduak errektoreordetzako webgunean daude eskuragarri ("Dokumentuak" izeneko erlaitza).

OHAR GARRANTZITSUA:

Aurkeztutako eskaera kopurua kontuan hartuta, eta eskatzaile guztiei ahalik eta azkarren erantzuteko asmoz, kontsulta guztiak posta elektronikoko bidez egin daitezela eskatzen da, helbide honetara idatzita: **rrhh-inves.dgi@ehu.eus**. **Mezuaren gaian hau jarri: "UBX deialdia"**.

Leioa, 2017ko otsailaren 1a.

**IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
IKERKETAREN GESTIOKO ZUZENDARITZA
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA**

EMANDAKO KONTRATUAK

	KODEA	NAN	PUNTUAZIO TOTALA
2	PIFBUR16/12	131033700491	84,66
3	PIFBUR16/06	78952879C	78,42
5	PIFBUR16/09	72546365H	75,52
7	PIFBUR16/07	72508934P	73,56

UKOAK

	KODEA	NAN	PUNTUAZIO TOTALA
1	PIFBUR16/16	72501420S	93,74
4	PIFBUR16/04	72102363P	77,56
6	PIFBUR16/08	44151389Z	74,94
8	PIFBUR16/05	100233300744	72,05

EMANDAKO BERRIAK

	KODEA	NAN	PUNTUAZIO TOTALA
9	PIFBUR16/17	45753113H	70,05
10	PIFBUR16/13	44152107L	68,88
11	PIFBUR16/01	45891178Z	68,118
12	PIFBUR16/02	45752999L	68,114